

108/2024 EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 12koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, hautaketa-prozesu baterako deialdia egiten da ikertzaileen lan kontratazioa egiteko, hitzarmen hauei lotutako jarduera zientifiko-teknikoetako kontratu bidez: “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsa garatzeko hitzarmena, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea” eta “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsa garatzeko hitzarmena, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea”.

2023ko abenduaren 21ean, Ikerketa Zerbitzuak hautaketa-prozesu baterako deia egiteko eskatu zuen, ikertzaileak kontratatzeko, 1. motako proiektuko lankide doktore gisa, hitzarmen hauei lotutako jarduera zientifiko-teknikoetako kontratu bidez: “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsa garatzeko hitzarmena, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea” eta “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsa garatzeko hitzarmena, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea”. Ikertzaile arduraduna Fernando Mendiola Gonzalo da, unibertsitateko irakasle titularra, Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailari atxikia.

Langileen Kudeaketako Ataleko buruaren txosten-proposamena aintzat harturik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak errektoretza-taldearen egitura orokorra onetsi eta bere funtzioak zehazteko 2023ko ekainaren 20an eman zuen 1306/2023 Ebazpenaren bidez eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.- Onestea hautaketa-prozesurako deialdi bat eta haren oinarriak ikertzaileen lan kontratazioa egiteko, hitzarmen hauei lotutako jarduera zientifiko-teknikoetako kontratu bidez: “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsa garatzeko hitzarmena, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea” eta “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsa garatzeko hitzarmena, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea”.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hautaketa Batzordeko kideei eta Ikerketa Zerbitzuari aditzera ematea.

Hirugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Unibertsitatearen iragarki ohol elektronikoan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 12an

Francisco J. Arregui San Martín
Ikerketako errektoreordea

IKERTZAILEEN LAN KONTRATAZIOA EGITEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA HONAKO HITZARMEN HAUEK GARATZEKO: “MEMORIA HISTORIKOAREN DOKUMENTU FUNTSA GARATZEKO HITZARMENA, NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ARTEKOA. 2024. URTEA” ETA “MEMORIA HISTORIKOAREN DOKUMENTU FUNTSA GARATZEKO HITZARMENA, NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ARTEKOA. 2024. URTEA”

Hauek dira deialdia arautuko duten

OINARRIAK

1.- DATU OROKORRAK

-Deialdiaren xedea: deialdi honen xedea ikertzaileak hautatzea da, ondoren lan kontratazioa egiteko, hitzarmen hauei lotutako jarduera zientifiko-teknikoetako kontratu bidez: “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtseko hitzarmena, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea” eta “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtseko hitzarmena, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea”.

-Maila profesionala: 1. motako proiektuko lankide doktorea, batez ere ikerketa-lanetan aritzeko.

-Eginkizunak: 1.- Materialak idaztea, zenbait formatutan, Memoria Historikoaren Dokumentu Funtseko informazioaren azterketa historiografikotik abiatuta.

2.- Askotariko informazio iturriak kontsultatzea eta hustuketa egitea.

3.- Ikertzaileei eta errepresaliatuen senitartekoei arreta ematea jasandako errepresio-gertakariei buruzko informazioa bilatzeko orduan.

4.- Kudeaketa administratiboko zereginetan laguntzea.

-Kontratu mota: jarduera zientifiko-teknikoen kontratuaren modalitatearen bidez eginen da kontratazioa, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

-Iraupena: mugagabea, hitzarmen hauei lotua: “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtseko hitzarmena, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea” eta “Memoria Historikoaren Dokumentu Funtseko hitzarmena, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artekoa. 2024. urtea”.

-Lanaldi mota: osoa.

-Ordainsariak: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikertzaileak Kontratatze Arautegiak bere eranskinean ezarritakoak, 2022. urtera egokituak; arautegi hori 2017ko maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsi zen, eta 2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu.

Diru-gehigarriak ordaintzeko aukera egonen da, proiektuan ezarritako helburuak betez gero. Diru-gehigarri horiek ordaintzeko, proiektuaren arduradunak ordainketa justifikatzen duen azken txosten bat egin beharko du, eta aurrekontuan diru kopuru nahikoa izan beharko da.

-Finantzaketa: Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua.

-Argitaratzeko tokiak: deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gainera, deialdiarekin lotutako egintza eta ebazpen guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratuko dira.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen batekoa.

Halaber, Espainiako, Europar Batasuneko estatuetakoa eta aipatu nazioarteko itunak aplikatzen diren eremuko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartzeko aukera dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartzeko aukera dute, zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden herrialdeetakoak izan eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek administrazio publikoetako lan kontratupeko langile aritzeko aukera izanen dute. Espainian bizi ez diren atzerritarrek parte hartzeko aukera izanen dute, betiere parte hartzeko betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, atzerritarrei buruzko legeek eskatzen dituzten baimenak lortu beharko dituzte kontratazioa egin ahal izateko.

b) 18 urte baino gehiago izatea, eta erretiro adina betea ez izatea.

c) Doktore titulazio akademiko ofiziala izatea.

d) Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

e) Diziplinako espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ez egotea epai irmo baten bidez ezgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

2.2.- Aurreko arauetan ezarri diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira, eta kontratazioa egin arte beteko dira.

3.- ESKAERAK

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodun igaro ondoren bukatuko da, deialdi hau **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesu honetarako **inskripzioa telematikoki** egin beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/sede/zerbitzu-katalogoa/guztiak/ikertzaileen-hautaprobak>

Lehenik, “**Hasi tramitea**” botoia sakatu behar da.

“**Erantsi fitxategiak**” eremuan, dokumentu hauek erantsi beharko dira lanpostu kategoria bakoitzerako:

- Parte hartzeko eskabidea.
- Nortasun Agiri Nazionalaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.
- Deialdian eskatzen den tituluaren fotokopia.
- Espediente akademikoaren fotokopia, batez besteko nota zehaztuta.
- Curriculum vitae, norberak egoki jotzen dituen merezimenduen egiaztagiriekin batera.

Parte hartzeko eskabide eredu esteka honetan dago:

<http://www2.unavarra.es/gesadj/registroGeneral/instancias/recursos-humanos/contratacion-personal-investigador.pdf>

4.- IZANGAIEN ONARPENA

4.1.- Eskakerak aurkezteko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, baztertua izateko arrazoia esanez, baztertuen kasuan. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

4.2.- Hirugarren oinarriak aipatzen dituen dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, eskaera epez kanpo aurkeztea edo lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea baztertzeko arrazoiak izanen dira, eta, gainera, ezin izanen dira zuzendu.

4.3.- Izangai baztertuek edo zerrendan azaldu ez direnek zilegi dute erreklamazioa egitea eta, akatsen bat badago, akatsak zuzentzea, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 5 egun balioduneko epean. Ezartzen den epean baztertuak izateko arrazoia konpontzen ez duten izangaiak behin betiko baztertuko dira, eta ez dute probarik eginen.

4.4.- Erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4.5.- Izangaiak hautaketa-prozesuan onartuen zerrendan egoteak edota 6.2 oinarriak aipatzen duen hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrendan egoteak ez du ekarriko inoiz ere unibertsitateak aitortzea betetzen dituztela deialdiko oinarrietan eskatu diren baldintza

orokorrak edo bereziak. Kontratatzeke deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

4.6.- Parte hartzeke eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin alderaturik jatorrizko dokumentazioa okerra edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, kontratua sinatzeko ezintasuna eta kontratazio zerrendatik baztertzea ekarriko du, interesdunak berak sinatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritz.

5.- HAUTAKETA-PROZESUA

Izangaiei merezimenduak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorritz eta I. eranskinke baremoaren arabera.

Izangaiek eskabideak aurkezteke epea bukatzean dituzten merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta gero lortutakoak ez dira kontuan hartuko. Hautaketa Batzordeak inola ere ez du onartuko izangaiek alegatu ez duten edo agirien bidez frogatu ez duten merezimendurik, eta ezin izanen du apartatu bakoitzean adierazitako gehienke puntuazioa baino handiagorik eman.

Adierazten diren merezimendu guztiak zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez frogatu behar dira.

Hautaketa Batzordeke kide bakoitzak baloratuko ditu izangaiei merezimenduak. Azken puntuazioa izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbestekoa izanen da.

6.- HAUTAKETA-PROZESUAREN EBAZPENEA

6.1.- Izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa amaitu eta gero, Hautaketa Batzordeak Ikerketake errektoreordeari bidaliko dio hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiei zerrenda, lortutako puntuazioekin.

6.2.- Ikerketake errektoreordeak ebazpena emanen du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiei zerrenda onesteko, eta Nafarroake Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratuko da.

6.3.- Deialdi honetan sortzen den kontratazio zerrendak 3 urteke indarraldia edukiko du argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Indarrean dagoen bitartean, kategoria bera eta ia eginkizun berak dituzten langileak kontratatzeke premia sortzen denean ere erabiltzen ahalko da kontratazio zerrenda hori, proiektu, kontratu, hitzarmen edo katedra baterake edo institutuko edo ikerketa-taldeke funtsetarake izan, betiere hurrenkera ordena errespetatuz.

6.4.- Deialdi honen ondoriozke kontratazio zerrendan egonik kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste edozein lanpostutarake kontraturik eskainiko. Dena dela, eskainiko zaie baldin eta kontratua bukatzeke 15 egun edo gutxiago gelditzen badira.

7.- HAUTAKETA-BATZORDEA

- Batzordeburua: Nerea Pérez Ibarrola doktorea, irakasle laguntzaile doktorea, Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailari atxikia, Ikerketako errektoreordeak delegatuta.
- Idazkaria: Fernando Mendiola Gonzalo doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailari atxikia.
- Batzordekidea: Gemma Piérola Narvarte, irakasle laguntzaile doktorea, Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailari atxikia.

ORDEZKO HAUTAKETA-BATZORDEA

- Batzordeburua: Juan Carlos García Funes, irakasle laguntzaile doktorea, Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailari atxikia.
- Idazkaria: Roldán Jimeno Aranguren doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Zuzenbide Sailari atxikia.
- Batzordekidea: César Layana Ilundain doktorea, irakasle elkartua, Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailari atxikia.

Hautaketa Batzordearen jarduerak, une oro, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko dira. Jakinarazpenak egiteko eta bestelako gorabeheretarako, Hautaketa Batzordearen egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioko eta Kudeaketako eraikina izanen da.

8.- DATU PERTSONALEN BABESA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak langileen kudeaketaren arloan antolatutako prozesuetan parte hartzeak interesdunen datuak tratatzea ekarriko du berekin. Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da.

Datuen tratamendua aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz egingen da, hots, Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz. <http://www.unavarra.es> webgunean argitaratutako Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta daiteke nola egingen den tratamendu hori, “GIZA BALIABIDEAK” atalean.

Tratatuko diren datuak batez ere hautaketa-prozesuetako izangaiak eta NUPeko langileenak izanen dira; hauek hain zuzen ere: izena, deiturak, NANA, datu akademikoak eta profesionalak eta, beharrezkoa denean, bankuko datuak eta Gizarte Segurantzakoak, edo ondoren deskribatzen den xedea betetzeko beharrezkoak direnak.

Datuen tratamendua justifikatzen duen xedea hau da: hautaketa-prozedurak, mugikortasunekoak, egoera administratiboak, ziurtagiriak, edo Giza Baliabideen arloan NUPen eskumenekoak diren beste batzuk tramitatzea.

Xede horrek interes publikoa edo botere publikoa legitimatzen du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ezartzen duen bezala. Hauek dira oinarri juridikoak, langileei buruzko beste arau batzuen artean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2015eko urriaren 30ekoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 1993ko abuztuaren 30ekoa.

Datuak tratatzeko jardueri dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta transferitzeko. Horretarako, mezu bat bidali behar dute delegado.protecciondatos@unavarra.es helbidera, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulutik 18. artikulura bitartekoei jarraikiz. Desadostasunen bat izanez gero, Datuak Babesteko Espainiar Agentziara jo dezakete, <https://www.aepd.es/> domeinuaren bidez.

9.- ERREKURTSOAK

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, eta zilegi da berraztertze errekurtsoa jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarreanean, biak ere ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

I. ERANSKINA

Ikertzaileak hautatzeko baremoa

ERABILIKO DEN BAREMOA ETA/EDO EGINEN DIREN PROBAK	
1. APARTATUA: Doktoretza-tesiaren balorazioa	Puntuak 20
Doktoretza-tesia baloratzeko, kontuan hartuko da zer kalifikazio duen eta zenbateraino egokitzen den ikerketa-proiektuaren gaietara: Gerra Zibilarekin eta diktadura frankistarekin lotutako historia garaikidearen ikerketak, bereziki errepresio frankistarekin eta Nafarroarekin zerikusia dutenak.	
2. APARTATUA: Ikerketako esperientzia	Puntuak 55
<p>- Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsean izandako lan esperientzia edo Dokumentu Funtse horrekin izandako lankidetzak: 30 puntu emanen dira gehienez (12 puntu arduraldi osoan lan egindako urte bakoitzeko, eta 5 puntu informazioaren tratamenduan egindako lankidetzak puntual bakoitzeko). Iraupen eta arduraldi txikiagoko aldiei puntuazio proportzionala emanen zaie.</p> <p>- Gerra zibileko eta frankismoko memoria historikoarekin lotutako elkarte edo erakundeetako proiektuetan, proiektuen kudeaketan, dibulgazioan, memorietan edo antzekoetan izandako lan esperientzia edo lankidetzak, ahal dela Nafarroan edo bestela beste toki batzuetan, 10 puntura bitarte baloratuko da: 2 puntu, urteko lanengatik (aldi laburragoei puntuazio proportzionala emanen zaie), eta 0,5 puntu gehienez proiektu eta jarduera puntualengatik, kontratu honen xede diren jarduerekin duten loturaren arabera.</p> <p>- Gerra Zibilarekin edo frankismoarekin lotutako historia garaikideari buruzko argitalpenak (15 puntu gehienez): lan dokumentuak, nazioko eta nazioarteko aldizkarietako artikulua</p>	

eta liburuetakoko kapituluak, 10 puntu gehienez (3 puntu gehienez argitalpen bakoitzeko); liburu argitaratuengatik 10 puntu emanen dira gehienez (5 puntu gehienez liburu bakoitzeko), kontratu honen xede diren jarduerekin duten loturaren arabera.

3. APARTATUA: Hizkuntzen eta kudeaketako informatikaren ezagutzak	Puntuak	15
- Hizkuntzen ezagutza: Ingelesa: Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak (CRUE) jasotako mailen arabera baloratuko da. 4 puntu B2 maila, eta 8 puntu C1 maila edo hortik gorakoa. Euskara: Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 2010eko irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean zerrendatutako titulazioen arabera baloratuko da. 4 puntu B2 maila, eta 8 puntu EGA, C1 maila edo hortik gorakoa. Frantsesa: Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak (CRUE) jasotako mailen arabera baloratuko da. 3,5 puntu B2 maila, eta 5 puntu C1 maila edo hortik gorakoa. - Informatikako eta Kudeaketako ezagutzak, betiere prestakuntza-ikastaroen, masterren eta informazioa eta proiektuak kudeatzen egindako lan jardueraren bidez egiaztatzen ahal badira: 2 puntu gehienez, edukiaren eta iraupenaren arabera.		

Hautaketa-prozesua gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa 50 puntu da.

Hautaketa-prozesuaren azken emaitzan gerta daitezkeen berdinketak 4. APARTATUAN puntuazio handiena atera dutenen alde ebatziko dira. Berdinketa badago, 2. APARTATUAN puntuazio handiena lortzen dutenen alde. Berdinketak jarraitzen badu, hautaketa-prozesua zozketaz erabakiko da.